

HEZKUNTZA IKUSKARITZA

KANPO EKIMENA BATZORDEA
COMISIÓN DE ACCIÓN EXTERIOR

3

EKAINA 2018

AGURRA

¿BADAKIZU...

...nola ebaluatzen dituen bere ikastetxeak Estoniako Hezkuntza Ikuskaritzak?

...eta Irlandakoak?

...eta Portugalekoak?

...eta Zeelanda Berrikoak?

Lankide agurgarriok:

Interes handiz prestatu dugun KANPO EKIMENeko buletinaren hirugarren zenbakia dakarkizuegu; bertan, dagoeneko dakizuen bezala, ekainaren 7an eta 8an, goizez, Bilboko Hezkuntza Ordezkaritzan egitekoak diren prestakuntza-jardunaldietako txostengile eta txostenen inguruko informazio garrantzitsua bildu dugu.

Egitaraua bi multzotan banatu da. Alde batetik, ostegunean, ekainak 7, Europako hiru ikuskaritzak hartuko dute parte: Estoniako ikuskaritzak, Irlandakoak eta Portugalekoak; bestetik, ostiralean, ekainak 8, Zeelanda Berrian egiten den ikastetxeen ebaluazioari buruzko esperientzia entzungo. Segidan, Melanie Ehren andreak ikuskaritzak ikastetxeen ebaluazioan duen egitekoari buruz hitz egingo digu, eta, bukatzeko, txostengile guztien arteko mahai-ingurua izango dugu, ikastetxeen ebaluazioari buruzko euren ikuspegiak alderatzeko.

Hezkuntza Ikuskaritzak bere kide garenok aukera ezin hobea eskaintzen digu kanpoan egiten denaren berri izateko eta, horrela, gure testuinguruan abiarazten duguna aztertu eta baloratzeko beste irizpide bat izan dezagun.

Emanaldiak grabatu egingo dira, pisuzko arazoak direla-eta, etorri ezin izan duenak, beranduago ere, informazioa eskuratu ahal izan dezan, eta aldibereko itzulpen sistema izango da behar duenarentzat (hitzaldi guztiak ingelesez egingo dira).

Jaso ezazue nire agurrik beroena,

Jose Angel Ayucar, Ikuskari nagusia.

EDUKIA:

1- AGURRA

2- PRESTAKUNTZA
JARDUNALDIEN EGITARUA3- TXOSTENGILEAK
ETA TXOSTENEN LABURPENA

4- MAHAI INGURUA

5.- HARREMANETARRAKO



2- PRESTAKUNTZA JARDUNALDIEN EGITARAUA

OSTEGUNA, 2018KO EKAINAREN 7A	
09:15-09:30	HASIERA Cristina Uriarte , Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Sailburua Jose Angel Ayucar , Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ikuskaritzako Ikuskari Nagusia
09:30-10:45	<i>The role of internal and external evaluation in an autonomous system. Estonian example.</i> (“Barne-ebaluazioaren zein kanpoko ebaluazioaren zeregina autonomia-testuinguru batean. Estoniako adibidea”). Kristin Hollo , ESTONIAko Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioko Kanpoko Ebaluazio arduraduna. Aurkezlea: Martin Casado, Bizkaiko hezkuntzako ikuskariak
10:45-11:15	KAFEA
11:15-12:30	<i>Experiences of school evaluation in Ireland</i> (“Irlandako eskoletako ebaluazio-esperientziak”) Pádraig Mac Fhlannchadha eta Miriam Horgan , Hezkuntzako ikuskariak IRLANDA Aurkezlea: Rosa Aliaga, Gipuzkoako hezkuntzako ikuskaria
12:30-13:45	<i>The role of external evaluation within school self-evaluation</i> (“El rol de la evaluación externa ante la autoevaluación del centro”) Helder Guerreiro , Hezkuntzako ikuskaria eta Europako Hezkuntza Sistemako ikuskari nazionala PORTUGAL Aurkezlea: Nekane Zabaleta, Bizkaiko hezkuntzako ikuskaria
13:45-14:00	LABURPENA Rosa Aliaga, Gipuzkoako hezkuntzako ikuskaria
OSTIRALA, 2018KO EKAINAREN 8A	
09:30-10:45	<i>External and Internal School Evaluation: a New Zealand perspective</i> (“Barne zein kanpoko eskola-ebaluazioa, Zeelanda Berriko ikuspegia”) Sandra Collins , Hezkuntza Ebaluatzeko Sailaren Ebaluazio Zerbitzuko goi-mailako ebaluatzailea ZEELANDA BERRIA Aurkezlea: Conchi Bergera, Europako programen arduraduna, Berritzegune Nagusia, Gasteiz
10:45-11:15	KAFEA
11:15-12:30	<i>Inspection and school self-evaluation for change; ‘Do inspection and evaluation lead to improvement?’</i> (“Aldaketarako ikuskaritza eta autoebaluazioa: ¿ikuskaritza eta ebaluaziok hobekuntzarantz bideratzen gaituzte?”) Melanie Ehren , UCL Institute of Education, LONDRES Aurkezlea: Inmaculada Pardo, Arabako hezkuntzako ikuskaria
12:30-13:45	MAHAI-INGURUA Pádraig Mac Fhlannchadha (Irlanda); Helder Guerreiro (Portugal); Kristin Hollo (Estonia); Sandra Collins (Zeelanda Berria); Melanie Ehren , UCL Institute of Education, University of Twente, Londres) Moderatzailea: Rosa Aliaga
13:45-14:00	ITXIERA Maite Alonso , Hezkuntza Saileko sailburuordea

3- TXOSTENGILEAK ETA TXOSTENEN LABURPENA (1)

The role of internal and external evaluation in an autonomous system. Estonian example.

(“Barne-ebaluazioaren zein kanpoko ebaluazioaren zeregina autonomia-testuinguru batean. Estoniako adibidea”)

Kristin Hollo, ESTONIAko Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioiko Kanpoko Ebaluazio arduraduna



Kristin Hollo, Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioaren Kanpoko Ebaluazio Saileko arduraduna da. 15 urte daramatza Ministerioan lanean; hasiera batean, Oinarrizko Hezkuntza eta Hizkuntzetako abokatu gisa, eta, gero, Oinarrizko Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako garapen estrategikorako aholkulari lanetan. Horrez gain, eskala handiko lege-garapenaren arduraduna izan da, eta Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioaren ordezkari izan da Europako Eskoletako Gobernu Batzarrean. Azken hiru urteotan, Ministerioaren Kanpoko Ebaluaziorako Saileko arduraduna izan da. Bi seme-alabaren ama denez, haur etapatik hasita bete-betean parte hartu du familien gobernu- eta partaidetza-organoetan.

Txostenaren laburpena:

Estoniako Hezkuntza Sistematan, ikastetxeek autonomia zabala dute, eta autoebaluazioak zeregin garrantzitsua du ikastetxeen kalitatearen hobekuntzan. Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioaren ardura bakarra ikastetxeek eta bere titularrek gauzatzen dituzten jarduerak araudiarekin bat datozen ikuskatzea da. Horrez gain, ikastetxeen autoebaluazioa oro har araututa dago; ikastetxe guztietan egin behar da, eta etengabeko prozesua da ikasleen eta ikastetxearen garapena ahalbidetzen duten baldintzak ziurtatzeko. Helburu hori lortzeko, ikastetxe bakoitzak bere indargune eta ahulguneak identifikatzen ditu, eta horietan oinarritzen du bere hobekuntza-plana. Barne-ebaluazio edo autoebaluazio-prozesuan, irakaskuntza-prozesua eta ikastetxearen kudeaketa aztertzen dira, eta haien eraginkortasuna ebaluatzen da. Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak erabakitzen du zein izango diren autoebaluazioaren prozedura eta barne-araudia. Hitzaldian honako galdera hauei erantzungo die: Zein dira Estoniako sistemaren abantailak eta desabantailak? Zein dira hurrengo erronkak?

3- TXOSTENGILEAK ETA TXOSTENEN LABURPENA (2)

Experiences of school evaluation in Ireland (“Irlandako eskoletako ebaluazio-esperientziak”)

Pádraig Mac Fhlannchadha eta Miriam Horgan, Irlandako hezkuntzako ikuskariak

Pádraig Mac Fhlannchadha Hezkuntza eta Jakintzen Saileko ikuskari-buruaren laguntzailea da. Irakasle-, zuzendariorde-, eta zuzendari-lanetan aritu zen Irlandako bi haur-eskolatan, 2002an Ikuskaritzan sartu aurretik. Hezkuntza Masterra du eta Hizkuntzalaritza Aplikatuan Cork Unibertsitateko MA (Master of Arts). Horrez gain, MBA (Master of Business Administration) du, Unibertsitate Irekian. Ikuskaritzan Lehen Hezkuntzako ikuskari-lanetan hasi zen eta ikastetxeetako autoebaluazio-prozesuen garapen-lanetan aritu da, ikuskaritza-programarako curriculumari eta autoebaluazioari buruzko politiken hornidura kudeatuz. Lehena izan zen Sailaren irakurketa-, idazketa- eta kalkulu-estrategien garapen-lanetan eta baita gaelikoz hitz egiten zuten eskoletako hezkuntza-politikaren garapenean ere.



Miriam Morgan Irlandako Hezkuntza eta Jakintzen Sailaren ikuskaritzako Bigarren Hezkuntzako Zientzia eta Kimikako goi-kargua da. 2004an hasi zen Ikuskaritzan lanean eta aurretik, bigarren hezkuntzako ikastetxe batean aritu zen zientzia eta kimikako irakasle gisa; halaber, ikastetxeetan Kimikako Curriculum Berria sartzeko Zientzia Fisikoen Ekimenean lan egin zuen. Zientzia Hezkuntzako Masterra dauka, Cork Unibertsitatean. Ikuskaritzako hainbat arlotan lan egin du, baita ikuskari-taldean kudeaketan ere, eta Sailak duen eremu kaltetuetako Ikastetxeen Bikaintasunerako Laguntza Funtzaren inplementazioa sustatzen. Horrez gain, funtsezko zeregina izan zuen Ikuskaritzako Hobekuntza eta Kalitaterako Sailaren ikastetxeetako autoebaluazio-politika eta -prozesuen garapenean



Txostenaren laburpena

Tostenean Irlandako eskoletako ebaluazio-esperientziak deskribatuko dira. Horretarako ikuskaritza-sistema baten funtzionatzeko era hartuko du ardatz, kontuan hartuz hobetzeko funtzioak zein kontu-ematea, eta azpimarratuko du hezkuntza-sisteman eta ikastetxeen autoebaluazioan beste eredu batzuk sartu direnean izandako esperientziak.

3- TXOSTENGILEAK ETA TXOSTENEN LABURPENA (3)

*The role of external evaluation within school self-evaluation
("Kanpoko ebaluazioaren zeregina ikastetxearen autoebaluazioari begira")*

Helder Guerreiro, Portugaleko hezkuntza-ikuskaria eta Europako Hezkuntza Sistemako ikuskari nazionala.

Helder Guerreiro Hezkuntzako ikuskaria da, 1999az geroztik. Bere jarduna nagusiki Portugaleko ikuskaritza-lanen eta, 2010az geroztik, Europako Hezkuntza Sistemako ordezkari-lanen artean banatzen da. Zenbait ikuskaritza-programatan parte hartu du, gehienak Ikastetxeen Kanpoko Ebaluazioari (IKE) lotuak, zeina beste lankide batekin batera nazio-mailan koordinatzen duen. Duela gutxi, Ikastetxeen Kanpoko Ebaluazioaren hirugarren ziklorako proposamena diseinatu duen lan-taldean parte hartu du; ziklo hori datorren ikasturtean hasiko da .

Europako Eskola Sistemaren ebaluatzaile nazionala denez, ikuskaritza eta eskola-auditoreentzako jardura askoren arduraduna da. Eskola Laguntzarako eta Aniztasunerako Politikaz arduratzen den lan-taldearen arduraduna da.

SICI (*Standing International Conference of the Inspectorates*) izeneko zuzendaritza-batzordeko kide izan zen 2011tik 2014ra, nahiz eta ez zuen elkarte horrekiko lankidetzaren lanik egin 2000. urtera arte. Europar Batasunak finantzaturiko proiektuen ebaluatzaile aditua izan da, eta, berriki, ikuskaritzen garapenerako laguntza-zereginetan parte hartu du Europar Batasunaren auzoko herrialdeetan.

Ikuskari izan aurretik, irakasle eta ikastetxe-zuzendari izan zen, eta, aldi labur batez, tokiko hezkuntza-erakunde batean lan egin zuen.

Helder Guerreirok hezkuntzako doktoretza dauka (hezkuntza-ebaluazioa espezialitatean), hezkuntza-zientzietako masterra (Hezkuntza eta Garapena espezialitatean) eta Hezkuntza Ikuskaritzako eta Prestakuntza eta Eskola Kudeaketaren Ebaluazioko graduondokoa.



Txostenaren laburpena:

Ikastetxeen autoebaluazioa haien hobekuntzarako ezinbesteko bitarteko gisa aurkezten da: eskolaren borondatearen esku dago; oro har, eskolaren beharrak identifikatzen ditu; ikastetxeari bere indarguneak eta ahulguneak identifikatzen eta beharrezko erabakiak hartzen laguntzen dio; zein jarduerari eman behar zaion lehentasuna argitzen du...Ikastetxearen autoebaluazioak abantaila era erabilera ugari du.

Ikastetxeak bere ebaluazioa zuzentzeko duen gaitasunak agerian uzten du ikastetxeak hezkuntza sistemaren barnean duen autonomia, eta bere arazoei aurre egiteko eta neurrira eginiko zenbait konponbide aurkitzeko gaitasun delegatua. Ikastetxearen autonomia handitzen ari den testuinguru batean, orokorrean Hezkuntza Ikuskaritzak gidatzen duen kanpoko ebaluazioa gehiegizko eta estresagarri gerta liteke, edota sarritan zama bihurtzen den betebeharreko formalitate hutsa.

Halere, ez du zertan nahitaez horrela gertatu. Helburu desberdina duten bi ebaluazio-aukera ditugula pentsatu beharrean (barnekoa eta kanpoko), pentsa genezake zer-nolako onurak lortuko genituzkeen bien arteko harreman dialektikoa balego. Ikuskaritzaren eta kanpoko beste eragile batzuen ekintzak eragin positiboa izan lezake autoebaluazioan, eta hura garatzen lagun lezake. Bestalde, autoebaluazioak kanpoko ebaluazioa elika lezake, eskola bakoitza bakar gisa ulertzen lagun lezaketan beste ikuspegi batzuk erantsiz. .

Txostenak bi ebaluazioen arteko harremana aztertu nahi du, egungo jardunean eta adibideetan oinarrituz.

3- TXOSTENGILEAK ETA TXOSTENEN LABURPENA (4)

External and Internal School Evaluation: a New Zealand perspective

("Eskolaren barneko zein kanpoko ebaluazioa, Zeelanda Berriko ikuspegi bat")

Sandra Collins, Hezkuntza Ebaluatze Sailaren Ebaluazio Zerbitzuko goi-mailako ebaluatzailea

Kualifikazio berrienak: Hezkuntzako masterra (2007) eta nota berezia duen Ebaluazioko Graduondoko Diploma (2004), Massey Unibertsitateak emana.

2007az geroztik Hezkuntza Ebaluatze Sailaren Ebaluazio Zerbitzuko Hezkuntzako goi mailako ebaluatzailea da. Bere lanaren jomuga nagusienak ebaluazio-sistema, eta metodologia eta adierazleen garapena dira.



(ERO, Education Review Office) Sailean ebaluatzaile gisa hasi zen, 90. hamarkadan eta 7 urtez, oinarrizko hezkuntzako eta haur-hezkuntzako eskoletako eta haurtzaindegietako (ECEC, Early Childhood Education and Care) kanpoko ebaluazioak gainbegiratzen jardun zuen. Hezkuntza Ministerioan lan egin zuen 2003tik 2016ra, ikastetxeen barne-ebaluaziorako gida garatzeko proiektua zuzentzen.

Sailak kanpoko ebaluazioari buruz duen ikuspegia aurkeztu du nazioan eta nazioartean, eta hainbat testuingurutan, bereziki haur-eskoletan eta haurtzaindegietan. Washingtingo Ebaluazio Institutuak antolatutako ikastaroetan parte hartu du, eta Austral-Asia Ebaluazio Elkarteak Melbournen (2008) eta Canberran (2017) antolaturiko hitzaldiak eman ditu. Halaber, txostena aurkeztu zuen, Aucklanden (2008) eta Ottawan (2017), eskolatzearen eraginkortasuna eta hobekuntzari buruzko Nazioarteko Biltzarrean (ICSEI).

ELGERen ECEC sareko kidea izan zen, eta taldearen bileretan egon zen Parisen, 2012tik 2015era. Sare horretako kide gisa, txostenak aurkeztera gonbidatua izan zen Tokion (Japón) 2014an eta Seulen (Hego Korea) 2015ean.

Hasiera batean, irakasle eta 5 urtetik 12ra bitarteko haurren irakasleen hezitzaile izan zen, 70. hamarkadan. Hitzaldiak eman zizkien irakasle-ikasketak egiten ari ziren unibertsitateko ikasleei, 90 hamarkadan, eta Hezkuntza Ministerioarentzako lanbide-garapenerako hitzarmen bat koordinatu zuen, adin goiztiarraren curriculumari jarraituz (Te Whāriki 1994-95).

Txostenaren laburpena:

Hezkuntza Saila (ERO, *Education Review Office*) da Zeelanda Berrian kanpoko ebaluazioaz arduratzen den agentzia. Txostenean aurkeztuko da gure herrian zer testuingurutan gauzatzen den barne-ebaluazioa eta kanpoko. ERO agentziaren ikuspuntua deskribatuko da, erreferentzia-esparrua eta eskolak barne-ebaluazioak egitera bultzatzen dituzten jarduerak barne direlarik. Ebaluatzaileek eskola bakoitzeko emaitzak ebaluatze erabiltzen dituzten jardueri buruz ere hitz egingo digu.

ERO agentziak berriki garatu ditu ebaluatzailearen gaitasunak, bere jarduna hobetzeko asmoz, eta gaur egun garapen profesionalari eta ebaluatzaileak erakartzeari buruzko ikuspegia aztertzen ari da. Horretarako lanbide-jarduna hobetzeko diseinaturiko erreferentzia-esparrua darabil. Berrikuntza hauek guztiak aurkezpenaren edukiaren barruan partekatuko dira.

3- TXOSTENGILEAK ETA TXOSTENEN LABURPENA (5)

Inspection and school self-evaluation for change; ‘Do inspection and evaluation lead to improvement?’

(“Aldaketarako ikuskapena eta autoebaluazioa: ikuskapenak eta ebaluazioak hobekuntzara bideratzen gaituzte?”)

Melanie Ehren, UCL Institute of Education, Londres

Melanie Ehren irakasle atxikia da UCL (*University College London*) Unibertsitatearen Hezkuntza Institutuko Kontu-emate eta Hezkuntzaren Hobekuntzarako Sailean, eta Hezkuntza Ebaluazio eta Kontu-emate Zentroko zuzendaria (www.educationalevaluation.net). Bere zeregin akademikoa kontu-emateen eta ebaluazio-sistemen eraginkortasunera bideratuta dago, eta kontu-emate horren eta hezkuntza-sistema zabalaren arteko harremana hobeto ulertzen laguntzea du helburu, desparekotasunaren eta ikasleen emaitzen hobekuntzaren gaiak jorrazteko. Hona hemen bere lanari buruzko zenbait giltzarri:



- ESRCk finantzaturiko ikerketa, “Hego Afrikako ikasketa-emaitzak hobetzeko kontu-emate, gaitasuna eta konfiantza” gaiari buruzkoa.
- EBko ERASMUS+/KA2-ren azterketa konparatzailea, 4 herrialdetako ikastetxe-saretan eginiko ikuskatze polizentrikoei buruzkoa.
- EBk finantzaturiko azterketa konparatzailea, eskola-ikuskapenek Europako 6 herrialdetan izan duten eraginari buruzkoa.

Nuffieldek finantzaturiko proiektua, Lehen hezkuntzako ikasleak matematikako azterketarako prestatzeko erabilitako estrategien izaera, lehenasuna eta eraginkortasunari buruzkoa.

Txostenaren bilduma

Hezkuntza ikuskaritzak zein ikastetxeek eginiko ebaluazioak helburu bera dute: Ikastetxeen kalitatearen maila ezagutzea, baina zenbaitetan ikuspegi ezberdinetatik begiratuta edo helburu ezberdinak kontuan hartuta. Zenbait herrialdetan, ordea, bi helburuak estuki lotuak daude, jarraipen-eta hobekuntza-ziklo jarraitua ziurtatzeko. Txosten honetan, lehenik ikuskaritzak eginiko kanpoko ebaluazioaren eta erakundeek eginiko autoebaluazioaren arteko erlazioa aztertuko da, eta, ondoren, azalduko dira ikerketaren ondorioz aurkitu diren ebidentziak, hobekuntza sustatzeko eta kontu-ematea ziurtatzeko ahaleaginean ikuskaritzak eta ebaluazioak duten eragina dela eta.

4- MAHAI INGURUA

Pádraig Mac Fhlannchadha (Irlanda); **Helder Guerreiro** (Portugal); **Kristin Hollo** (Estonia); **Sandra Collins** (Zeelanda Berria); **Melanie Ehren**, UCL Institute of Education, Londres)

Mahai inguruan parte hartzen dutenei honako galdera hauek egingo zaizkie:

1. Kontuan izanik bakoitzak zuen esparruan duzuen ebaluazioarekiko esperientzia, zer mezu helaraziko zenietekete barne-ebaluazioaren sistema abiarazi nahi duen eskola bati? Nondik hasi beharko lukete? Zer saihestu beharko lukete?
2. Zer aholku emango zeniekete ikastetxeak ebaluatzeko sistema bat abiarazi nahi duten arduradun politiko eta ebaluatzaileei?
3. Zer neurritan hartu behar dira kontuan ikasleen emaitzak ikastetxearen ebaluaziorako?
4. Nolako eragina du zuen herrialdeko hezkuntza Ikuskaritzak ebaluazio-prozesuan? Ebaluatzen da haren esku-hartzea?

5- KONTAKTUA



Iradokizunen postontzia :
huisg004@euskadi.eus

Hona hemen KANPO EKIMENA BATZORDEAREN webgunea:

<http://www.euskadi.eus/informacion/dimension-europea-de-la-inspeccion-en-la-educacion/web01-a2hikus/es/>